

Katramila

EHE-en ALDIZKARIA

85 UZTAILA

Esku artean daukazuen papertxo honek, aldizkari baten kategoria lortu nahi du, baina ez orri eta kolore askotako azalari dagokionez, baizik eta mamia eta iraunkortasunean. O zenbakia pasa den Abenduan argitaratu eta zabaldu zen Bizkaian. Oraingoan Euskal Herri guztian zaudeten E.H.E.ko bazkide eta lagunen artean banatzeko asmoarekin bigarren ale hau osotu dugu.

Komunikaziorako tresna moduan erabili nahi genuke KATRAMILA, hau da, GUK ZUEI, ZUEK GURI bi norabideetan. Horregaitik honen gainean dagoen "E.H.E. mintzo" hurrengoan izan daiteke: "_____ mintzo".

Bigarren orrialdean egunkari desberdinetan agertzen diren berri batzu irakur ditzakezu. Agian ez dira izango inportanteenak baina bai mamitsu eta baliotsuak. Adibidez, Maiatzako berririk nagusienak Korrika eta AEKko gose grebalarrienak ditugu dudarik gabe, baina hauek informatuta izango zarete honezkero.

Hirugarren orrialdean "GAIAK" izeneko atala dugu. Hemen liburuetatik, hitzaldietatik... aukeratutako zati batzu argitaratuko ditugu. Katramila honetan Gotzon Egiak emandako hitzaldi batenak ditugu.

Azken orrialdean euskal munduan dauzkagun pertsonaiei egindako elkarrizketaz osotu eta beteko dugu Katramila.

kaixo

instituzioak, euskararen alde?

Inork inoiz zafantzarik izan bazuen ere, aste hauetan ikusi denak garbi utzi du gure herriaren nahia; bai «Euskararen Egunean», «Herri Urratsen», «Ibilaldian», «Korrikan» eta bai «Araba Euskaraz»-en azkenik, hizkuntzari eutsi nahia erakutsi du euskaltzale jendeak; sinetsi ezinezko mobilizazioak lortuz.

Gauza bera agertzen da tamaina txikiagotako hamaika ekinzetan: herrietan, auzoetan, gure herriaren parte handi batek (oso parte handia, dudarik gabe, nagusitu den patxarakeria kontutan hartzen bada) Euskal Herrian Euskaraz nahi du; gure mogimenduen izena lelo eta helburu bihurtuz.

Baina, momentu berean, gero eta ahulago agertzen dira instituzio ofizialak.

Erizantzan bakarrik milioiak ehunka eragiltzen direlarik (bide-nabar esateko: noiz ikasiko dute euskaraz erizain famatu horiek?). AEK-ko zenbaitek diru beharrez gose grebari ekin behar. Unibertsitatearen «Cursos de verano» delakoek, gero eta segurantzi handiagoz lan egiten duten bitartean, arriskutan dago berriro UEU-rekiko laguntza; harremanak berak, lotsaz bezala, zeharbidez egiten direlarik. Euskal telebistan, berriaz, harrigarritzko «inkestak» azaltzen dira berriro (hauteskundeak geratu daudelako?), erdaraz ez egitegatik gertatzen omen zaizkion «kalteak»-eta. Udaletan, PSOE-ren e, daritzapean, baina «Pacto de

Legislatura» delakoak errespetarazien duen isilpean, behin eta berriaz inpugnatzen da euskararen jakin beharra. Donostian (San Sebastián-en), uztailan egitekoa den Drogari Buruzko Nazioarteko Kongresoan espainiera eta ingelera hizkuntza ofizialak izendatzen dira, euskara guztiz baztertua geratzen delarik; Eusko Jaurlariza eta Euskal Herriko Unibertsitatea antolatzaileen artean egonik, euskarak halako bereizkeri lotsagarria jasan behar?, euskara Euskal Herriko hizkuntza ofiziala izendatzen duten legeak non daude? Eta guzti hau nahiko ez baliuz bezala, helburu kulturalekin euskaraz Baztanen emititzen zuen Xorroxin irratia armen indarrez prezintatua izan da (nork erabiltzen du biolentzia?).

Kontrazio hori hor dago, euskaltzale jendea batetik, instituzioak bestetik.

Hots, azkeneko asteotan, be-deinkazio berri eta lotsagabe bat jaso dute instituzio horiek Euskaltzaindiaren aldetik; honek bere lema erabat galdu balu bezala.

Alde batetik, Lehendakariordea den Haritzelhar mintzatu da; eta, EGIN-ek kondatu duenez, hau esan du: «El sueño de una Euskal Herria únicamente vascofona, es una utopía que debemos rechazar». Areago: Normalizazio Legea goraitu zuen; eta hau erantsi: «El pueblo vasco está forzado a ser bilingüe» (espainiera eta ingeleraren «lebitasuna»). Gure galdera ez da zaila: zein

eredu proposatzen du Haritzelharrek? Zai gaude.

Eta bestetik, Euskaltzaindiaren buruzagia den Mitxelenak idatzi du (eta ez da lehenengo aldiz, noski, bide honetatik): «Nuestras narraciones histórico-legendarias no dejan de ser nuestras por estar escritas en romance». Berriro, beraz, Raul Guerra Garrido-ren hildotik Mitxelena, PSOE-ren txaloak jasotzeko moduan. «Vasconia Bilingüe»-aren alde agertu da: zein ereduren arauera ikusi nahi gintuzkeen azaldu ez badu ere: Irlanda? Belgika? Jugoslavia? Ez dakigu. Eta, honetakoan izenez gu aipatu gabe, gu astindu gaitu berriro ere «No es seguro que donde los medios humildes vencieron hubieran prevalecido también los brios arrogantes». Alde batetik, Mitxelenak maite omen dituen «medio humilde» horietatik ekarri gintuzten gaurko egoera honetara; eta hori ez da «garaitzea»; galtzea baizik. Eta bestetik, eta aspaldidanik, zai gaude Mitxelenak PSOE-ren jokoa oiz salatuko. Udalen olatu hau dela-ta, hortxe dauka okasio ona euskararen etsai ezin zitalago horiek jipoitzeke.

Guk ez dugu dirunik, ez ohorerik, eta ez erizainik geure zerbitzuetan.

Baina nekez arrapatuko gaituzte geure herria saltzen, eta eisaiafren kontrako egiak izkutatzen.

EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZ
1985ko ekainaren 22

ehe mintzo

1 Gipuzkoako Diputazioak Maiatzaren 2an berreuskalduntze plan bat anuntziatu zuen eta publikoarekin lan egiten duten funtzionarioei laguntzeko, itzultzaile batzuen kontratazioa, behin, behinekoa.

Langileen batzordeak gogorki salatu du kontratazio hau, Diputazioak ez baitu ezer egin goi mailetan. Librez aukeratutako lanpostuetan erdaldunak baino ez daude: Departamentuko zuzendari eta idazkari tekniko gehienak. Batzordeak aipatzen du ere, publikoak euskaraz eskatu duelako, egin dutela korrika kontratazio burugabe hau. Euskararen Legea ez dutela betetzen eta egoera penagarri hau konpontzeko plangintza zehatza behar dela azpimarkatzen dute langileek.

2 Euskal Gobernuak 20 miloi erabiliko du euskarazko Berrien Agentzia antolatzeko, aurtengo aurrekontuetatik aterata. Heurek aitortzen dutenez, diru nonekin agentziaren proiektua egiteko ere ez da nahikoa izango, eta datorren urtean osotuko lukete kopuru hau. Seguraski EITB barruan erakunde publiko moduan eratuko da.

Euskarazko Agentzia berez, hurrengo urtean guzatu da eta honekin batera euskal egunkaria luzaroko atzeratzen da, nahiz eta orain dela bi urte DEIAK eta EGINek jadanik zeukatzen proiektuak eginda.

Euskal Gobernuak ere 20 miloi bideratuko du Euskararen Egun Institutuzionala eratzeko. Gizartea berreuskalduntzearen beharraz kontzientziarazteko egingo omen dute.

Diputazioko
itzultzaile
automatiko
berria



3 Parlamentuko Politika Linguistikoaren Batzordean, Maria Alavedra consellerak 7 urte barru katalanera guztiz normalizatuko dela baieztatu zuen, Administrazioari dagokionez.

21.000 funtzionarioek parte hartu dute katalanerzko ikastaroetan eta Generalitatearen langileen %68 batek egunero erabiltzer du. Zehatz mehatz emanda datuak: %64,9k idazten du, %33k hitzegiten du, %30k ulertzen du, eta ez du ulertzen %2,3k.

Generalitatek ere 69 errekurtsio jarri ditu Estatuko Administrazio periferikoaren kontra, oposaketetarako deialdietan ez baitu kontutan hartu katalaneraren oinarritzko ezagupena.

Consellerak komisaldegietan katalanera sartzeko borondatea ere azaldu zuen. Horretarako Bartzelonako Jefaturan ikastaroak antolatu dira.

. IRUÑEKO IKASTETXETAN ESKOLAURREKO IKASLEENTZAKO EUSKARAREN IRAKASKUNTZA URTE BETEZ ATZERATUKO DA.

. SANTIURTZIKO UDALETXEAK UDAL FUNTZIONARIA IZATEKO EUSKARAREN OINARRIZKO EZAGUPENA ESKATU DUELAKO, GOBERNARI ZIBILAK AKORDIOA ANAULATU DU.

. EUSKARA TOLOSAKO UDAL ZERBITZUETAN; ZERBITZUA HOBEITU ETA EUSKAL HIZTUNAK KONTZIENTZIATU.

. ASTURIASEKO ANTONOMI ESTATUTOAK EZ DU BABLEAREN OFIZIALITASUNA ONARTU, LAGUNDUA ETA BABESTUA IZANGO DELA DIO. BITARTEAN IBERIAK OVIEDOKO AIREPORTUKO BULEGOETAN BABLEA ERABILIKO DU.

. KATALUNIAN 1981an POPULAZIOAREN %19,5K KATALANERA EZ ZUELA ULERTZEN AITORTU ZUEN. 1983-84AN OSTERA, %4 ZEN BAKARRIK.

. BARTZELONAKO AUDIENTZIA ETA GENERALITAT, ELKAR LANEAN ARITUKO DIRA HIZKUNTZ NORMALBIDEAN.

. UGTEK EUSKARAREN EZARRERA AZKARREGIA KRITIKATZEN DU.

. LASARTE: BAKARRIK %8K HITZEGITEN DU EUSKARAZ.

. SANTIAGON (GALIZIA) "APADAL" IZENEKO ELKARTEA SORTU DA GALLEGOAREN DEFENTSARAKO. GURASOZ OSOTURIK DAGO ETA HAIEN HELBURUAK INGURUNE GALLEGOJUNAK ESKEINI HAURREI ETA UME GALLEGOEN ESKUBIDE LINGUISTIKOAK DEFENDATU.

. LA CRIDAK KATALANERA HIZKUNTZ OFIZIAL BAKARRA IZAN DADILA ESKATZEN DU.

. EUSKAL HERRIAN IKASLE GUZTIEN %14K IKASTEN DU BAKARRIK EUSKARAZ.

HIZKUNTZA ETA BOTEREA

GOTZON EGIAK EMANDAKO HITZALDITIK ZATI AUKERATUAK

Bilbon, 1985ko Apirilak 15

"...Galizian populazioaren ehuneko larogeiak gutxienez gallegoa du bere hizkuntza, baina funtzionari izateko ez da aski gallegoa bakarrik jakitea, gaztelera jakin benar da derrigor. Gaztelera baizik ez dakienak berriz ez du zertan gallegoa ikasi behar Galizian funtzionari izan nahi baldin badu. Argi dago beraz errealtate linguistikoaren aurka gaztelera hizkuntza dominantea dela naniz eta gaztelera bakarrik dakitenak oso gutxi izan Galizian. Halako egoera batean guztiz zaila da nire ustez hizkuntzen arteko hierarkia honek klase sozialen arteko borrokarekin erlaziorik batere ez duela pentsatzea. Halatan, hizkuntza ez da bakarrik komunikaziorako, espada opresiorako tresna ere.

Klase dominatzailearen diskutsoa

Betiñanik bestalde klase boteredunek beren dominazioa legitimatzeko, gizartearen begien aurrean zilegizko birtutetako, ideologia propio bat sortu dute, populuak naturalizatzen nar dezan esate baterako lantegiak ugazaben jabetzepean izan behar direla. Hizkuntzari buruz ere, oso aspaldidanik dago klase dominatzaileen ideologia legitimatzaile bat, zeinaren bitartez jende arruntak pentsatu baitu munduan badirela hizkuntza handi, kulto, boteretsu eta aberats batzuk, eta beste dialekto, lingoi edo mintzaira xume, pobre, kulturgabe eta arrote batzu, zaharrak eta atzerakoiak European baldin badira, basatiak eta zibilizatugabeak Afrikan edo Ameriketan.

"...la lengua vasca desaparece rápidamente sin que nadie pueda evitarlo. Casi en la mitad de las provincias vascas ya no se habla casi, es diferente en Vizcaya y Guipuzcoa, hasta el punto de que los habitantes de estas provincias a menudo no se comprenden; lo escrito, casi nadie lo comprende, el pueblo es absolutamente incapaz de escribirlo. (La lucha de clases 1901, 1909 eta 1921)

"Esta hace pocos siglos no ha habido lenguas universales, que son las mayores creaciones históricas y de mayores consecuencias nacidas. Entiendo por lenguas universales no las que son habladas por muchas personas, acaso por muchos millones. /.../ América, por ejemplo, existe como tal porque se hablan en ella tres lenguas: el español, el portugués y el inglés. Ya sé que hay cierto número de habitantes que no hablan -o muy escasamente- estas lenguas, sino solamente las aborígenes: pero justamente son los que están al margen de la historia, los que no participan en la vida de nuestro tiempo, los que están relegados a un nivel que hoy es infrahumano, aunque no lo fuera hace medio milenio." Marias 1985

Glotofagia

Bigarren testua bere krudeltasun osoan azaltzen du nola ifar eta hego Ameriketako berezko populazioa izan den bost mendeetan Colonen bidaiak geroztik zapaldua, historiatic kanpo ezarria eta abereen mailara kondenatua. Humanitatearen lotsakizunerako, orain genozidio izugarri horren bostehun urteurrenak ari dira handikiro prestatzen;

Ideologia dominatzaileak beraz beti defenditu du eta legitimatzen saiatu hizkuntz imperialismoa, edo beste era plastikoago batez esateko glotofagia: hizkuntza batek beste hizkuntza bat jan edo irenstea alegia. Eta nola legitimatzen hori? Modu askotan, baina bereziki klase nagusien hizkuntzari balore positibo gustiak atxikiz, eta negatibo guztiak hizkuntza zanpatuari. Horrela adibidez, frantsesa modernotasuna, aurreratasuna, kultura eta orobat zibilizazioaren hizkuntza izan den bezela, bretoiara, langedozianoa, euskara eta Alsaciako alemana erreakzioa, ruralismoa, atzeratasuna eta klerikalismoaren sinaletzat hartuak izan dira.

Glotozidio Euskal Herrian.

Glotozidioa ez da goizatik arratsera gertatzen. Hasiera batean, populazio ia osoa elebakarra da eta minoria elebidun batek bakarrik daki hizkuntza dominatzailea. Populazioa elebidun izatera egongo da behartuta laster, hizkuntza ofiziala ikasi behar baitu, klase nagusiak elebaki direlarik beren hizkuntzan. Azkenetako, glotozidio-prozesua inork edo ezerk geldierazten ez badu hizkuntza dominatuaz mintzo direnak gutxitzen joando dira, guztiz ahitu arte.

Bizkaiko Batzarreek 1613an erdaraz ongi idazten ez zekien orori prokuradore izatea debekatu zioten. Urte batzu geroago Bizkaian altxatu ziren matxinatuak biziki borrokatu ziren Batzarreetan euskaraz mintzatzearren alde "denok elkar uler dezagun".

... provide
... language other
... departments that have
... tion in a language other

... competence under the
... to the Conseil de
... committees and deter
... conditions of operation
... committees to the depart

... by-laws subject to a

... nces and committees no

... the Ministère de

... (14-21), make agree

... to facil

EKINTZATIK KOMUNIKAZIORA

Euskalduntze bidean, euskararen transmisioaz gain, nizkuntza berria ikasten dutenek erabil dezaketen ere lortu behar da. Alberto Gabiak Eginen agertu tako elkarrizketa batean azaltzen digu AEKren metodu berria hau.

"Metodologia berri horren oinarriak finkatzen arigara. Hauetariko bat, nire aburuz, herriaren, euskaldunen ahalmena erabiltzea litzateke: euskara ezin da gelara mugatu; eta bestetik, faktore multiplikatzailerak behar da: euskara dakien oro behar da izan irakasle neurri batean. Horrez gain diglosiaren aurka ari bagara, ezin diogu diglosia mantentzen duen ezein faktoreri amore eman, esaterako, ez da zuzena euskaltegi batean idazten den guztia lau hormen artean gelditzea. /.../ Hirugarrenik, kultur transmisioaren planteamendua errotik aldatu behar da. Euskal Kulturak gure herrian duen egoeran, ez da zilegi kultura hartzea edo hizkuntza ikastea eskubide edo ahalmen indibidual bezala planteatzea. Hartzen duen guztiak, eman ere egin behar du. Zabaldu, eta diglosia gaingaitzen lagundu.

Metodo antidiglosikoa

Lenen metodo Komunikatiboa aplikatzerakoan, kaleko edo laneko egoera simulatuak sortzen ziren ikasgelan komunikazio-giroa errazteko, orain, aldiz, komunikazio nori benetan gertatzen den tokira eramango da ikaslea, eta han, ekintza desberdinak burutuz, praktikan jarri beharko du ikasi duen euskara, eta komunikazioaren praktikan hobeto ikasi ere egingo da.

Aipaturiko Alfabetatze-1 programazio berri horretan 50 ekintza proposatzen dira, arlo guztietakoak, eta beti ere gizarteari projektatuak: herri mailakoak, kirol mundukoak, etab. Adibide batez azaltzeko, egun batean, klasean, herriko kirol-instalazioak aztertzen dira, eta proposatzen dita ondorioz zentzudait ekintza: udalera joan eta gutun bat utzi bertan, edo kaleetan kartelak jarri, edo honi edo beste teari elkarrizketa bat egin gero artikulo bat publikatzeko. Halako ekintzak. Bi helburu betetzen dira horrela, batetik euskara egiazko komunikazio-



funtzioetan ikasi, eta bigarren, euskararen agerpena gehitu, gelatik gizarteratu.

Bide berriak

AEK barruan dinamika berri horretara moldatu beharko da. Baina bide horretatik go beharko dugun bestela zertan bereizten da AEKren lana eta besteena? eta besteena ez badu euskara salbatuko, gureak bai?

Bide berriak ere jorratu beharko dira; esaterako, metodu hori bideratzeko, komunikabideak behar dira: irrati libreak, aldizkari-egunkariak. Horretarako, Irrati eta Prentsa idatzirako lan-taldeak eratzeko asmotan gabilta, medio horietan jendeak gaitasuna lor dezan.

(EGIN, 1985ko Ekainak 2)

gurekin kontaktatzeko

ARABA	Errege Katolikoak 15-c (AEK)	Telf. 945. 288922
BIZKAIA	Astarloa 2,3	Telf. 94. 4241480
GIPUZKOA	ARRANOBELTZA Ikatz kalea 10	Telf. 943. 425213
NAFARROA	ARTURO KAMPIOAN Komedias 14,4	Telf. 948. 222246